



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena Gai nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa Asuntos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2017ko irailak 19

Vitoria-Gasteiz, 19 de septiembre de 2017

Gobernantza Publikoa eta Autogobernua

GOBERNUAK EAJ-PNV ETA PSE ALDERDIEK GARDENTASUNARI ETA HERRITARREN PARTE HARTZEARI BURUZKO EUSKAL LEGE BERRIA PRESTATZEKO BATERA EGIN DUTEN EKIMENA GORAIPATZEN DU

- **Egindako lege-proposamenaren aldeko irizpena adierazi du; izan ere, gizarteak politika publikoen, gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen ebaluazioaren arloan arau modernoa eta eguneratua izateko duen beharrari erantzuten dio**

Gobernu Kontseiluak, gaur, Legebiltzarreko talde nazionalistek eta euskal sozialistek batera aurkeztu duten “*Euskal Autonomia Erkidegoko Gardentasunari eta Herritarren Parte Hartzeari buruzko*” Lege Proposamenaren aldeko irizpena adierazi du. Legegintzako ekimen hori XI. Legegintzaldi honetarako Gobernu Akordioaren konpromisoetako bat da. 2018rako aurreikusten zen; beraz, Eusko Jaurlaritzak goraipatu egiten du EAJ-PNV eta PSE akordiora heldu izana, lege garrantzitsu horren izapidetzea arintzeko.

Eusko Jaurlaritzaren ustez, ekimen horrek zuzenean konektatzen du euskal gizarteak gardentasun-printzipioaren errekerimendu publikoei erantzuten dien arau modernoa eta eguneratua izateko eta herritarrek gai publikoetan parte hartzeko tresna eraginkorrak sustatzeko duen beharrizanarekin. Horrela, Eusko Jaurlaritzak ongi-etorria ematen dio proposamen horri; izan ere, legegintzako ekimena bat dator Eusko Jaurlaritzak datozen hileotarako duen helburu nagusietako batekin: administrazioei eta, oro har, sektore publikoari, gobernantza publiko egokia ematea.

POLITIKA PUBLIKOEN EBALUAZIOA, GARDENTASUNA ETA PARTE HARTZEA

Legebiltzarraren ekimenaren bidez, sektore publikoaren funtzionamenduaren funtsezko ardatzak arautuko dira, herritarrek politika publikoak ebaluatzeko, gai publikoetan parte hartzeko eta administrazio publikoek Euskadin sortzen duten informazioa libreki eta gardentasun osoz ezagutzeko dituzten eskubide berrien inguruan.

Euskal Administrazio Publikoaren eta herritarren arteko elkarreaginaren eskakizun berriei erantzungo die, herritarren ekarpenen berri emateko, horiek aktiboki entzuteko, erakusteko eta koordinatzeko, aldebiko elkarrizketa sustatzeko, euskal gizarteak gai publikoetan duen ekimena sustatzeko eta ondasun erkidean oinarritzen diren proiektuetan lankidetzeta publiko-pribatua bultzatzeko.

Gobernantza Publikoa eta Autogobernua

EUSKO JAURLARITZAK LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAREN LANAREN OBJEKTIBOTASUNA, INPARTZIALTASUNA ETA INDEPENDENTZIA OSOA DEFENDATZEN DU

- **Autonomia osoz funtzionatzen duen organo honen lehendakaritza eta kidezkak hautatzeko sistemari betoak ezartzeko eta aldatzeko asmoa duen PPren ekimenaren kontrako irizpena adierazi du**

Gobernu Kontseiluak, gaur, *“Lehiaren Euskal Agintaritzaren otsailaren 2ko 1/2012 Legea aldatzeko”* Lege Proposamenaren kontrako irizpena adierazi du. Ekimena Euskal Talde Popularrak egin zuen, eta, horren bidez, legeko zenbait artikulua aldatzea proposatzen da, Lehiaren Euskal Agintaritzaren lehendakaritzaren eta kidezkak hautaketa-prozesuari betoak ezartzeko eta eskakizunak aldatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren iritziz, aldaketa hori ez da egokia; izan ere, besteak beste, Lehiaren Euskal Agintaritzan lan egiten duten pertsonen objektibotasun osoz, independentziaz eta inpartzialtasunez betetzen dituzte beren eginkizunak. Gaur egun arte, gainera, organo horretan lan egin dutenek ez dute inolako kezarik adierazi beren gaitasunari, eskumenari, independentziari edo alderdikeriari buruz.

Hori horrela, testuak defendatzen du organoak bere eginkizunak autonomia organikoaz eta, beste administrazio batzuetan bezala, Eusko Jaurlaritzaren mendeko sektore publikoan parte hartu gabe betetzen dituela. Gainera, karguen izendapena 6 urteko aldikoa da, legegintzaldietakoa baino luzeagoa; beraz, kideek ez dute hauteskunde-prozesuen ondoriozko aldaketa politikoekin zerikusirik.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren irizpidea adierazten duen testuak dio Eusko Jaurlaritzak lehendakaritza izendatzeko eginiko proposamenari Eusko Legebiltzarrak betoa ezarri ahal izateko aukera dela, eta Alderdi Popularrak eginiko proposamena ezohikoa dela eta ez duela aurrekaririk gure ordenamendu juridikoan.

Azkenik, Gobernuak gogorarazi du Lehiaren Euskal Agintaritza organo gaztea dela, duela 5 urte bakarrik jaiotua, eta hura sortzeko legea onartzeko Legebiltzarraren babes handia izan zuela, baita orain aldaketa-proposamena egiten duen Legebiltzarreko taldearena ere.

Gobernantza Publikoa eta Autogobernua

EUSKO JAURLARITZAREN IRITZIZ, EH-BILDUK PROPOSATZEN DUEN ESKOLA KONTSEILUEN ERREFORMA EZ DA ERAGINKORRA ETA BAZTERTZAILEA ETA DISKRIMINATZAILEA DA

- **Gobernuak ekimenaren aurkako irizpena adierazi du; izan ere, bere iritziz, desitxuratu egingo luke erakundea eta ezagutezin utziko luke**

Gobernu Kontseiluak, gaur, EH-BILDU talde legebiltzarkideak aurkeztutako “*Euskadiko Eskola Kontseiluei buruzko urriaren 28ko 13/1988 Legea aldatzeko*” Lege Proposamenaren aurkako irizpena adierazi du. Ekimenak artikulua aldatzeko proposamena egiten du, garai berrietara egokitzen den araua eguneratzeko.

Eusko Jaurlaritza erreforma horren aurka agertu da; izan ere, hura aplikatzeak ekarriko luke Eskola Kontseiluen erakundea erabat desitxuratzea. Erreforma ez litzateke eraginkorra izango azaldu den helburua betetzeko, eta organo horiek ezagutezin geratuko liriteke.

Gainera, Eusko Jaurlaritza beldur da EH-BILDUK proposatutako aldaketak helburu den diskriminazioa dela eta legeria organikoa hautsi ahal izatea; izan ere, foroan parte-hartzetik salbuesten ditu eraginpean dauden gizarte-sektoreak.

EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUA

Euskadiko Eskola Kontseilua unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzaren programazio orokorrean inplikaturik dauden gizarte-sektoreen parte-hartzearen eta hezkuntza-eremuan Eusko Jaurlaritzak proposatu beharreko araudiaren inguruko kontsultaren eta aholkularitzaren inguruko organo goren da.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

9.860.000 € EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARRANTZA- ETA AKUIKULTURA-SEKTOREARENTZAKO LAGUNTZAK FINANTZATZEKO

- Iraunkortasun neurriak eta merkaturatzerako planak ezartzea finantzatuko da
- Onuradunak izan ahal dira partikularrak edo ondasun komunitateak: erakundeak, arrantza profesionalak, sektoreko produktoreen erakundeak eta arrantzaleen kofradiak

Eusko Jaurlaritzak Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren agindu bat onartu du. Horren bidez, deialdia egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko arrantza- eta akuikultura-sektoreari zuzendutako laguntzetarako. Zehazki, sektore horri 9.860.000 €-ko finantzaketa dagokio.

Deialdi horren aurrekontu-zuzkidura honela banatzen da: 6.803.400 € Europako Itsas eta Arrantza **Funtsari (EIAF) dagozkie, eta** 3.056.600 € Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorreari.

Zehazki, hauek dira laguntza-lerroak:

A. Arrantza jasangarria

- Berrikuntza.
- Aholkularitza-zerbitzuak.
- Ikertzaileen eta arrantzaleen arteko elkarteak.
- Giza kapitala sustatzea, enplegua sortzea eta elkarrizketa soziala.
- Arrantzale gazteentzat hasierako laguntza.
- Arrantza-ontzietan edo banako ekipoetan egindako inbertsioen segurtasuna eta osasuna.
- Arrantza-jarduerak aldi baterako geldiaraztea.
- Arrantza-jarduerak behin betiko geldiaraztea.
- Arrantzak itsas ingurunean duen eragina mugatzea eta arrantza espezieen babesera mugatzea.
- Itsasoko baliabide biologikoen kontserbazioarekin lotutako berrikuntza.
- Itsas ekosistemak eta biodibertsitatea babestea eta leheneratzea, eta arrantza-jarduera jasangarrien esparruko konpentsazio-erregimenak. Itsasoko hondakinen bilketa.
- Itsas ekosistemak eta biodibertsitatea babestea eta leheneratzea, eta arrantza-jarduera jasangarrien esparruko konpentsazio-erregimenak.
- Eraginkortasun energetikoa eta klima-aldaketa arintzea. Ontziko inbertsioak, kontu-ikuskapenak eta azterketa energetikoak.
- Eraginkortasun energetikoa eta klima-aldaketa arintzea. Motorrak ordezteko edo modernizatzea.

o) Balio erantsia, produktuen kalitatea eta nahi gabe hartutako harrapakinen erabilera.

p) Arrantza-portuak, ontziratze-tokiak, lonjak eta ainguralekuak.

B. Produkzioko eta merkaturatzeko planak eta neurriak

1. Produkzioko eta merkaturatzeko planak eta neurriak.
2. Merkaturatze-neurriak.

C. Akuikultura jasangarria

1. Berrikuntza.
2. Akuikulturako inbertsio produktiboak: produkzioa dibertsifikatzea, instalazioak hobetzea eta modernizatzea, produktuen kalitatea hobetzea, putzuak edo urmaelak leheneratzea.
3. Akuikulturako inbertsio produktiboak: baliabideen efizientzia, uren eta kimikoen erabilera gutxitzea, birziklatzeko sistemak.
4. Akuikulturako inbertsio produktiboak: efizientzia energetikoa eta energia berriztagarriaren erabilera areagotzea.
5. Akuikultura-ustiatzietarako kudeaketa-, ordezkapen- eta aholkularitza-zerbitzuak.
6. Giza kapitala eta sareko lana sustatzea.
7. Akuikultura-produkzioko eremuen ahalmena handitzea.
8. Akuikultura-enpresak sustatzea.
9. Animalien osasunari eta ongizateari buruzko neurriak.

Epea eta aurkezteko tokia

Eskabideak aurkezteko, laguntza motaren arabera, EHAAn eta www.nasdap.ejgv.euskadi.net orrian argitaratutako ereduari jarraitu behar zaio. Dokumentazioa hemen aurkez daiteke: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren bulegoetan, Lakuan nahiz lurralde-ordezkaritzetan, edota Saileko Arrantza Azpiegituren Zerbitzuan (Concha Jeneralaren kalea, 21, 2.a, Bilbo) edo Saileko Arrantza Antolatzeko Zerbitzuaren bulegoetan (Easo kalea, 10, Donostia). Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotako edozein baliabideren bitartez ere aurkeztu ahal izango da dokumentazioa.

Ogasuna eta Ekonomia

EUSKO JAURLARITZAK ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEI ETA PROFESIONALEI ZUZENDUTAKO FINANTZA LAGUNTZAKO 2017KO PROGRAMA ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, onartu du Euskadiko enpresa txikiei eta ertainei eta autonomoei zuzendutako finantza-laguntzako urteko programari buruzko dekretua. Programaren helburua da kolektibo horiei banku-finantzaketa lortzeko aukera ematea, haien kapital zirkulatzailerako finantzaketako eta likideziako beharrei erantzuteko.

Programak joan den 2016ko ekitaldiaren finantza-baldintzei eusten die, eta maileguen interes-tasa gehienez honela finkatuko da: Euroiborra, sei hilabetetara, gehi eragiketaren epearen arabera diferentzial maximo batzuk; % 1 hiru urtetarako eragiketetan, eta % 1,25 bost eta zazpi urtetarako eragiketetan.

Programa betetzeko, Ogasun eta Ekonomia Sailak bidezko hitzarmenak sinatuko ditu Elkarriko Berme Sozietateekin eta Finantza Erakundeekin.

Programaren xehetasunak EHAAn emango dira argitara, hurrengo egunetan.

Hezkuntza

24,6 MILIOI EURO HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOA ESKAINTZEN DUTEN ESKOLA PRIBATUENTZAT

- **Egun Euskadin hezkuntza maila hori eskaintzen duten 272 eskola pribatu daude, 13.822 hurrekin**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2017-2018 ikasturterako Haur Hezkuntzako lehen zikloa eskaintzen duten titularitate pribatuko haur-eskolentzat diru-laguntzak arautzen dituen Agindua.

Hezkuntza Sailak 24.627.322 euro bideratzen ditu diru-laguntza deialdi honetara, honako helburu hauekin: aipaturiko hezkuntza zentrootik mantentzen laguntzea, zerbitzu horiek erabiltzen dituzten familien kuotak gutxitu eta bateratzea, eta zerotik hiru urtera arteko haurrentzako eskola horietan ematen diren hezkuntza eta zerbitzuaren kalitatea hobetzea. Era berean, egun dagoen eskaintza finkatzea eta, beharrezkoa izanez gero, handitzea ere bada diru-laguntza hauen xedea.

Eskola hauek, Haurreskolak Partzuergoko haur-eskolek eskaintzen duten zerbitzuaren osagarri dira, eta haiekin batera, euskal familietan familia bizitza eta lanbidea bateratzeko funtsezko hezkuntza-zerbitzua eskaintzen dute.

Egun, Haur Hezkuntzako lehen zikloa eskaintzen duten 272 zentro daude Euskadin, hezkuntza-maila hori eskaintzeko behar bezala baimenduta egonik, diru-laguntza hauen onuradunak izan daitezkeenak. 2017-2018 ikasturte honetan, 13.384 haur daude eskola horietan matrikulaturik. Diru-laguntza deialdi honetan eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdia EHAAr argitaratu eta hurrengo egunean hasita.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAK HITZARMENA SINATU DU MERKATARITZA-GANBEREKIN MERKATARITZA ELEKTRONIKOA SUSTATZEKO

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak prestakuntzako eta aholkularitza teknologikoko programa garatuko du txikizkako saltokientzat. Horretarako, lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu du Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako merkataritza-ganberekin merkataritza elektronikoren arloko programa bat sustatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko txikizkako saltokiei zuzenduta.

Lehenengo fasean programaren berri emango da eta txikizkako saltokiak erakarriko dira marketin jardueren eta programa hedatzeko ekintzen bidez, harik eta programan parte hartuko duten saltokiak hautatu arte.

Hortik aurrera, hurrengo etapan, prestakuntzako eta tutorizazioko jarduerak egingo dira negozioen eta horiek kudeatzen dituzten pertsonen digitalizazio-mailara egokituta, eta aholkularitza teknologikoa eskainiko da eta aplikazioak ezarriko dira. Azkenik, merkataritza elektronikoa ezartzeko prozesuaren faseen arabera, (ezarpena, optimizazioa eta sare sozialetan eta kanpoko webetan sendotzea), diseinatutako soluzioak ezarriko dira.

Programara 1.100.000 euro bideratu dira. 2015ean eta 2016an 1.188 saltokik jo zuten "comercioelectronico.eus" Programara; gehienak ehun-gaiekin eta osagarriekin lan egiten dutenak, eta ondoren etxeko ekipamendua eta elikagaiak saltzen dituztenak.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK KULTURA ONDASUN IZENDATU DITU ZADORRA IBAIKO ZUBIAK, 'MONUMENTU MULTZOAREN' KATEGORIAN

- **Babesak arabar lurraldeko 15 udalerritan dauden 88 zubi hartzen ditu guztira**

Gobernu Kontseiluak Zadorra ibaiko zubiak kultura ondasun, monumentu multzoaren kategorian, izendatzen dituen dekretua onartu du gaurko bere bileran. Dekretuaren xedea da ondare hori ondasun kalifikatuen erregistroan sartzea, bere babesa eta mantentzea bermatzeko. Ondare honek 15 udalerritan sakabanatuta dauden 88 zubi hartzen ditu barne.

Gaur onartutako dekretuak monumentu multzo gisa onartutako eremua mugatu du. Aipatua Arabako ibai emaritsuenaren 66 kilometroetan zehar barreiatuta dago. “Zadorra ibaiko arroa da egungo bide-sarearekin sinbiosi ezin hobea agertzen duten bere zubien katalogo aberatsa egituratu eta ordenatzen duen eragilea. Kultura unitatea osatzen duten zubi ezberdinen batzea justifikatzen duen osagai lotzailea da”.

Dekretuak dioenaren arabera, “kategoria ezberdineko bide ugari sare korapilatsu baten baitan, zubiek mugari garrantzitsua osatzen dute” eta inguru horretan “fabrika-arkuak” duen garrantzia azaltzen du. Dekretua onartu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Kultura Ondarearen Zentrorra atxikitako kultura ondasun kalifikatuen erregistroan sartuko ditu zubiak.

Zadorra ibaiko arroaren zubien monumentu multzoak hiru kategoriatan banatzen ditu babestutako zubiak, beren babes-erregimenaren arabera. Armiñongo Zubi Zaharra da babes bereziko erregimena izango duen bakarra. Beste 34 zubik babes ertaineko erregimena izango dute, eta beste 53 zubiek oinarrizko babesa izango dute.

Babes-eremuaren mugatzeak ondoko udalerriak hartzen ditu barruan: Alegria-Dulantzi, Armiñon, Arratzua-Ubarrundia, Barrundia, Berantevilla, Elburgo/Burgele, Iruña-Oka, Iruraiz-Gauna, Legutio, Ribera Baja/Erribera Beiti, Agurain-Salvatierra, San Millán/Donemiliaga, Vitoria-Gasteiz, Zigoitia eta Bernedo.

Segurtasuna

**SEGURTASUN SAILAREN ETA UPV/EHU-REN ARTEKO LANKIDETZA
HITZARMENA, LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNA MASTERRAREN
MASTER AMAIERAKO LANETARAKO ETA/EDO IRAKASKUNTZA
PRAKTIKORAKO**

Gobernu Kontseiluak, Segurtasuneko sailburuaren proposamenez, onartu du Euskal Autonomia Erkidegoaren —Segurtasun Sailaren bidez— eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) arteko lankidetz hitzarmena, Laneko Segurtasun eta Osasuna unibertsitate-masterreko ikasleen master-amaierako lanetarako eta/edo irakaskuntza praktikorako.

Akordioaren helburua da hezkuntza-lankidetzako programak garatzea eta, horretarako, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzan praktikak antolatzea, Laneko Segurtasun eta Osasuna unibertsitate-masterreko ikasleentzat.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO APLAUDE LA INICIATIVA CONJUNTA DE EAJ-PNV Y PSE PARA ELABORAR UNA NUEVA LEY VASCA DE TRANSPARENCIA Y PARTICIPACIÓN CIUDADANA

- **Manifiesta criterio favorable a la toma en consideración de su proposición de ley porque conecta con la necesidad social de disponer de una norma moderna y actualizada en materia de evaluación de políticas públicas, transparencia y participación ciudadana**

El Consejo de Gobierno ha manifestado hoy su criterio favorable a la Proposición de Ley “de Transparencia y Participación ciudadana de la comunidad Autónoma de Euskadi” presentada conjuntamente por los grupos parlamentarios nacionalistas y socialistas vascos. Esta iniciativa legislativa es uno de los compromisos del Acuerdo de Gobierno para esta XI Legislatura. De hecho, estaba prevista para 2018 por lo que el Gobierno Vasco celebra que EAJ-PNV y PSE hayan llegado a un acuerdo para agilizar la tramitación de esta importante ley.

El Gobierno Vasco cree que la iniciativa conecta directamente con la necesidad de la sociedad vasca, de disponer de una norma, moderna y actualizada, que atienda a los requerimientos públicos del principio de transparencia, y a promover herramientas eficaces para la participación ciudadana en los asuntos públicos. Así, el Gobierno Vasco da la bienvenida a esta propuesta porque la iniciativa legislativa va en línea con el objetivo prioritario del ejecutivo vasco para los próximos meses: dotar a las administraciones, y al sector público en general, de una buena gobernanza pública.

TRANSPARENCIA, PARTICIPACIÓN Y EVALUACIÓN DEL POLÍTICAS PÚBLICAS

La iniciativa parlamentaria regulará los ejes fundamentales del funcionamiento del sector público en torno a los nuevos derechos de la ciudadanía a evaluar las políticas públicas, participar en los asuntos públicos y acceder libremente y con total transparencia a la información que generan las administraciones públicas en Euskadi.

Atenderá a los nuevos requisitos que demanda la interacción entre la Administración Pública Vasca y la ciudadanía, para informar, escuchar activamente, mostrar y coordinar las aportaciones ciudadanas, impulsar el diálogo bidireccional, promover la iniciativa de la sociedad vasca en los asuntos públicos y la colaboración público-privada en proyectos que redunden en el bien común.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO VASCO DEFIENDE LA OBJETIVIDAD, IMPARCIALIDAD Y PLENA INDEPENDENCIA DEL TRABAJO DE LA AUTORIDAD VASCA DE LA COMPETENCIA

- **Manifiesta criterio desfavorable a una iniciativa del PP que pretende modificar e implantar vetos al sistema de elección de la presidencia y vocalías de este órgano que funciona con total autonomía**

El Consejo de Gobierno ha manifestado hoy su criterio desfavorable a la Proposición de Ley “*de modificación de la Ley 1/2012, de 2 de febrero, de la Autoridad Vasca de la Competencia*”. La iniciativa, formulada por el Grupo Parlamentario Popular Vasco-Euskal Talde Popularra, propone modificar varios artículos de la ley para cambiar los requisitos e implantar vetos al proceso de elección de la presidencia y vocalías de la Autoridad Vasca de la Competencia.

El Gobierno Vasco cree que esta modificación no es oportuna porque, entre otras cuestiones, las personas que trabajan en la Autoridad Vasca de la Competencia, desarrollan sus funciones con plena objetividad, independencia e imparcialidad. De hecho, hasta la fecha, las personas que han trabajado en este órgano, no han planteado reproche alguno acerca de su capacidad, competencia, independencia o parcialidad.

En este sentido, el texto defiende que es un órgano que ejerce sus funciones con autonomía orgánica y sin formar parte, como en otras administraciones, del sector público dependiente del Gobierno Vasco. Además, el nombramiento de sus cargos es por un periodo de 6 años, superior a las legislaturas y por tanto, sus integrantes son ajenos a los cambios políticos derivados de los procesos electorales.

Por otro lado, el texto de manifestación de criterio del Gobierno Vasco advierte de que la propuesta del Partido Popular de añadir la opción de veto del Parlamento Vasco a la propuesta del Gobierno Vasco de nombramiento de su presidencia, es inusitada y carece de antecedentes en nuestro ordenamiento jurídico.

Finalmente, el Gobierno recuerda que Autoridad Vasca de la Competencia es un órgano joven, nacido hace solo 5 años y que la ley de su creación fue aprobada con un importante respaldo parlamentario, incluido el del grupo parlamentario proponente, ahora, del cambio.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO VASCO CREE QUE LA REFORMA DE CONSEJOS ESCOLARES QUE PROPONE EH-BILDU ES INEFICAZ, EXCLUYENTE Y DISCRIMINATORIA

- **El Gobierno manifiesta criterio desfavorable a la iniciativa al considerar que desfiguraría la institución y la dejaría irreconocible**

El Consejo de Gobierno ha manifestado hoy su criterio desfavorable a la Proposición de Ley “*de modificación de la Ley 13/1988, de 28 de octubre, de Consejos Escolares de Euskadi*”, presentada por el Grupo Parlamentario EH-BILDU. La iniciativa, propone modificar numerosos artículos con el fin de realizar una actualización de la norma que se adapte a los nuevos tiempos.

El Gobierno Vasco es contrario a esta reforma porque su aplicación supondría la total desfiguración de la institución de los Consejos Escolares. Sería una reforma ineficaz para el fin que se busca y dejaría a estos órganos irreconocibles en el panorama comparado.

Además, el Gobierno Vasco teme que la modificación que propone EH-BILDU pueda vulnerar la legislación orgánica por la discriminación que se pretende, al excluir a sectores sociales afectados de la participación en el foro.

CONSEJO ESCOLAR DE EUSKADI

El Consejo Escolar de Euskadi es el órgano máximo de participación de los sectores sociales implicados en la programación general de la enseñanza no universitaria y de consulta y asesoramiento respecto de la normativa que haya de ser propuestas por el Gobierno Vasco, en el ámbito educativo.

Desarrollo Económico e Infraestructuras

9.860.000 € PARA FINANCIAR AYUDAS AL SECTOR PESQUERO Y ACUÍCOLA DE EUSKADI

- **Se financiará la implantación de medidas de sostenibilidad y de planes de comercialización.**
- **Los beneficiarios pueden particulares o comunidades de bienes, organizaciones profesionales pesqueras, organizaciones de productores del sector y cofradías de pescadores.**

El Gobierno Vasco ha aprobado la orden del departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras por la que se convocan las ayudas al sector pesquero y acuícola de Euskadi, y a las que corresponde una financiación de 9.860.000 €.

La dotación presupuestaria de esta convocatoria se reparte en 6.803.400 € procedentes del Fondo Europeo Marítimo y de Pesca (FEMP), y 3.056.600 € que corresponden a los presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi. En concreto, las líneas de ayudas son:

A. Pesca sostenible.

- a) Innovación.
- b) Servicios de asesoramiento.
- c) Asociaciones entre investigadores y pescadores.
- d) Fomento del capital humano, creación de empleo y diálogo social.
- e) Ayuda inicial a jóvenes pescadores.
- f) Salud y seguridad en inversiones a bordo de los buques pesqueros o en equipos individuales.
- g) Paralización temporal de actividades pesqueras.
- h) Paralización definitiva de actividades pesqueras.
- i) Limitación del impacto de la pesca en el medio marino y adaptación de la pesca a la protección de especies.
- j) Innovación relacionada con la conservación de los recursos biológicos marinos.
- k) Protección y recuperación de la biodiversidad y los ecosistemas marinos y regímenes de compensación en el marco de actividades pesqueras sostenibles. Recogida de residuos del mar.
- l) Protección y recuperación de la biodiversidad y los ecosistemas marinos y regímenes de compensación en el marco de actividades pesqueras sostenibles.
- m) Eficiencia energética y mitigación del cambio climático. Inversiones a bordo, auditorías y estudios energéticos.
- n) Eficiencia energética y mitigación del cambio climático. Sustitución o modernización de motores.

o) Valor añadido, calidad de los productos, y utilización de capturas no deseadas.

p) Puertos pesqueros, lugares de desembarque, lonjas y fondeaderos.

B. Planes y medidas de producción y comercialización

1. Planes y medidas de producción y comercialización.
2. Medidas de comercialización.

C. Acuicultura sostenible

1. Innovación.
2. Inversiones productivas en la acuicultura: diversificación de la producción, mejora y modernización de los centros, mejora de la calidad de los productos, recuperación de estanques o lagunas.
3. Inversiones productivas en la acuicultura: eficiencia de los recursos, reducción del uso de aguas y químicos, sistemas de recirculación.
4. Inversiones productivas en la acuicultura: incremento de la eficiencia energética y energía renovable.
5. Servicios de gestión, sustitución y asesoramiento para las explotaciones acuícolas.
6. Promoción del capital humano y del trabajo en red.
7. Aumento del potencial de las zonas de producción acuícola.
8. Fomento de nuevas empresas acuícolas.
9. Medidas de salud y bienestar animal.

Plazo y lugar de presentación

Las solicitudes deben presentarse siguiendo el modelo publicado en el BOPV y en la página www.nasdap.ejgv.euskadi.net, dependiendo del tipo de ayuda. La documentación se puede entregar en las dependencias del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras, bien en Lakua bien en las Delegaciones Territoriales, o bien en el Servicio de Estructuras Pesqueras del Departamento, sito en Bilbao, calle General Concha 21, 2º, o en las dependencias del Servicio de Ordenación Pesquera del Departamento, sitas en Donostia-San Sebastián, calle Easo 10. También podrán presentarse por cualquiera de los medios previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Hacienda y Economía

EL GOBIERNO APRUEBA EL PROGRAMA DE APOYO FINANCIERO A PYMES Y AUTÓNOMOS PARA 2017

En su reunión de hoy el Consejo de Gobierno ha aprobado el decreto sobre el Programa anual de Apoyo Financiero dirigido a las PYMES y autónomos de Euskadi, para 2017, cuyo objeto es permitir el acceso a la financiación bancaria de los citados colectivos para atender sus necesidades de liquidez y financiación de capital circulante.

Este programa, mantiene las condiciones financieras del pasado ejercicio 2016 , el tipo de interés de los préstamos que queda fijado en un máximo de Euribor a seis meses más unos diferenciales máximos según el plazo de la operación: 1% para operaciones a tres años, y 1,25% para operaciones a cinco y siete años.

Para la implementación del Programa el Departamento de Hacienda y Economía suscribirá los correspondientes convenios con las Sociedades de Garantía Recíproca y las Entidades Financieras.

Los detalles del programa se publicarán en el BOPV en los próximos días.

Educación

24,6 MILLONES DE EUROS PARA LAS ESCUELAS DE PRIMER CICLO DE EDUCACIÓN INFANTIL DE TITULARIDAD PRIVADA

- **Actualmente hay en Euskadi 272 centros privados que ofrecen esta etapa educativa, con 13. 384 niños y niñas**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, la Orden por la que se convocan ayudas económicas a las escuelas de primer ciclo de Educación Infantil de titularidad privada, durante el curso 2017-2018.

El Departamento de Educación destina 24.627.322 euros a esta convocatoria de subvenciones, con la finalidad de contribuir al mantenimiento de estos centros educativos, disminuir y homogeneizar las cuotas de las familias usuarias de sus servicios y mejorar la calidad de la atención educativa y asistencial de las escuelas infantiles de titularidad privada para niños y niñas de cero a tres años. Así mismo, es también objetivo de estas subvenciones consolidar la oferta ya existente y ampliarla en los casos que se considere necesario.

Las escuelas objeto de esta convocatoria de subvenciones, complementan el servicio que ofrecen las escuelas infantiles del Consorcio Haurreskolak, y junto con ellas, constituyen un servicio educativo fundamental que facilita la conciliación de la vida familiar y laboral de las familias vascas.

Actualmente existen en Euskadi un total de 272 centros educativos de titularidad privada que ofertan el primer ciclo de Educación Infantil, y que estando debidamente autorizadas para impartir esta etapa educativa, pueden ser beneficiarias de estas ayudas económicas. Durante este curso 2017-2018, hay 13.384 niños y niñas matriculados en ellas.

El plazo para la presentación de solicitudes será de 1 mes a partir del siguiente día al de la publicación de La convocatoria en el BOPV.

Turismo, Comercio y Consumo

EL DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO FIRMA UN CONVENIO CON LAS CÁMARAS DE COMERCIO PARA IMPULSAR EL E-COMMERCE

El departamento de Turismo, Comercio y Consumo desarrollará el programa de formación y asesoramiento tecnológico para el comercio minorista. Para ello, ha firmado un convenio de colaboración con las Cámaras de Comercio de Bizkaia, Gipuzkoa y Araba para impulsar un programa de comercio electrónico dirigido a los comercios minoristas de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

La primera fase consistirá en la difusión del programa y la captación de los comercios minoristas a través de acciones de marketing y divulgación del programa hasta la selección de los comercios participantes.

A partir de ahí, en una siguiente etapa tendrán lugar las actividades formativas y de tutorización adaptadas a los niveles de digitalización del negocio y de las personas gestoras y se ofrecerá el asesoramiento tecnológico e implantación de aplicaciones. Por último, se implementarán las soluciones diseñadas, en función a las fases del proceso de implantación del comercio electrónico (iniciación, optimización y consolidación en redes sociales y webs externas).

El programa está dotado con 1.100.000 euros. En los años 2015 y 2016 se beneficiaron del Programa “comercioelectronico.eus” 1.188 comercios, con una mayoría de los dedicados a textil y complementos, seguidos por equipamiento del hogar y alimentación.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO CALIFICA COMO BIEN CULTURAL CON LA CATEGORÍA DE 'CONJUNTO MONUMENTAL' LOS PUENTES DEL RÍO ZADORRA

- **La protección abarca un total de 88 puentes situados en 15 términos municipales del territorio alavés**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión de hoy el decreto por el cual se califican como bien cultural, con la categoría de conjunto monumental, los puentes de la cuenca del río Zadorra. El objetivo de este decreto es inscribir este patrimonio, que consta de 88 puentes repartidos en 15 términos municipales, en el registro de bienes calificados para favorecer su protección y conservación.

El decreto hoy aprobado delimita la zona que debe ser reconocida como conjunto monumental, situada en torno al río más caudaloso del territorio alavés y sus 66 kilómetros de recorrido. “Es la cuenca del río Zadorra el agente que actúa y ordena el rico catálogo de puentes a ella adscritos en perfecta simbiosis con la malla viaria vigente. Se trata del elemento aglutinador que justifica la agrupación de los distintos puentes que conforman la unidad cultural”, indica el decreto.

Según establece, dentro de una “enmarañada red de sendas de distinto rango, los puentes constituyen un hito muy determinante” y especifica la importancia en esta zona del tipo “arco de fábrica”. Tras la aprobación del decreto, el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco inscribirá estos puentes en el registro de bienes culturales calificados, adscrito al Centro de Patrimonio Cultural.

El conjunto monumental de los puentes de la cuenca del río Zadorra divide en tres listados, según su régimen de protección, los 88 puentes objeto de protección. Únicamente el Puente Viejo de Armiñon contará con un régimen de protección especial, mientras que un total de 34 puentes contarán con un régimen de protección media. El resto de puentes, 53, contarán con una protección básica.

La delimitación objeto de protección se divide en los siguientes municipios: Alegria-Dulantzi, Armiñon, Arratzua-Ubarrundia, Barrundia, Berantevilla, Elburgo/Burgele, Iruña-Oka, Iruraiz-Gauna, Legutio, Ribera Baja/Erribera Beiti, Agurain-Salvatierra, San Millán/Donemiliaga, Vitoria-Gasteiz, Zigoitia y Bernedo.

Seguridad

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD Y LA UPV/EHU PARA LA DOCENCIA PRACTICA Y/O TRABAJOS FIN DE MASTER EN SEGURIDAD Y SALUD EN EL TRABAJO

El Consejo de Gobierno, a propuesta de la consejera de Seguridad, ha aprobado la suscripción del convenio de colaboración entre la Comunidad Autónoma de Euskadi, a través del Departamento de Seguridad, y la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU para la docencia práctica y/o trabajos fin de master, del alumnado del máster universitario en seguridad y salud en el trabajo.

El acuerdo tiene por objeto el desarrollo de programas de cooperación educativa mediante prácticas en la Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología para el alumnado del Master Universitario en Seguridad y Salud en el trabajo.